Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2325

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 27koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, 2011ko ekitaldirako Nazioartekotze Beken deialdiaren berri ematen duena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza, eta Turismo sailburuaren 2011ko apirilaren 13ko Aginduak nazioartekotzeko beken programa arautu zuen (2011ko apirilaren 26ko EHAA).

Aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da 2011ko ekitaldirako bekadunak hautatzeko deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horrenbestez, agindu horren 6. artikuluan ezarritako eskumena erabilita, honako hau:

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren agindu batez arautu zen nazioartekotze beken programa; eta oraingo ebazpen honen bitartez, aipatu aginduan aurreikusitako beken, zehazki, 2011ko ekitaldirakoen deialdia egiten da.

Bigarrena.– Deitutako bekak.

Gehienez ere, 2011ko ekitaldian, laurogeita bost (85) nazioartekotze beka emango dira.

laurogeita bost (85) onuradunek A modalitatea burutuko dute, eta ezarritako baldintzak beteta modalitatea amaitzen duten hautagaien artean, gehienez ere 70 lagun hautatuko dira B eta C modalitateekin jarraitzeko honela banatuta: 60 beka B modalitatean eta 5 beka C modalitatean. B eta C modalitateetarako 15 ordezko aukeratuko dira gehienez ere. Ordezko horiek bekaldiaren lehen bi hilabeteetan bekadunen batek uko bekari eginez gero edo bestelako gorabeheraren bat gertatuz gero, hutsik geratutako bekak hartu ahal izango dituzte, baldin eta Nazioartekotze Zuzendaritzak onespena ematen badu 2011ko apirilaren 13ko Aginduaren 19.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Diru-baliabideak.

Deitutako laurogeita bost bekak finantzatzeko, 5/2010 Legean (abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena) horretarako ezarritako

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2325

RESOLUCIÓN de 27 de abril de 2011, del Viceconsejero de Innovación y Tecnología, por la que se hace pública la convocatoria para la concesión de Becas de Internacionalización, para el ejercicio 2011.

La Orden de 13 de abril de 2011, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo, regula el Programa de Becas de Internacionalización (BOPV de 26 de abril de 2011).

De conformidad a lo establecido en el artículo 6 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria para la selección de los becarios para el ejercicio de 2011, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 6 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

Primero.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria, para el ejercicio 2011, de las becas previstas en la Orden del Consejero de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo, por la que se regula el Programa de Becas de Internacionalización.

Segundo.– Becas convocadas.

El número máximo de becas de internacionalización a conceder en el ejercicio 2011 será de 85.

Los 85 beneficiarios realizarán la Modalidad A, y de entre los candidatos que finalicen la misma, cumpliendo con los requisitos establecidos, un máximo de 70 personas podrán ser seleccionadas para continuar con las Modalidades B y C distribuidas de la siguiente forma: 60 becas en Modalidad B y 5 becas en Modalidad C. Se seleccionarán también, para las Modalidades B y C conjuntamente, un máximo de 15 suplentes, los cuales podrán cubrir posibles renuncias o cualquier otra incidencia que se produzca en los dos primeros meses de período de la beca, si la Dirección de Internacionalización así lo considera, de conformidad con lo previsto en el artículo 19.1.a) de la Orden de 13 de abril de 2011.

Tercero.– Recursos económicos.

A la financiación de las 85 becas convocadas, según los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al respecto en la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Ge-

aurrekontu-kredituari jarraituz, diru-zenbateko hauek bideratuko dira: eta honela banatuko dira:

1.– A modalitaterako ehun mila (100.000) euroko dotazioa bideratu da 2011. urtean.

2.– B eta C modalitateetarako, batera, 4 milioi ehun eta berrogeita hamabost mila eta bostehun eta berrogeita hamahiru (4.155.553) euro bideratu dira honela banatuta:

– 2011ko ekitaldia: 1.888.889 euro.

– 2012ko ekitaldia: 1.208.886 euro.

– 2013ko ekitaldia: 1.057.778 euro.

Aipatu zenbatekoak handiagoak izan ahalko dira; horretarako, betiere deialdiari buruz ebazpena eman aurretik, eman beharreko beka guztien zenbateko osoa ikusi behar da, eta, baldin eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak beste programa batzuk burututakoan aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratzen bada, aurrekontuetan erabilgarri dagoen diruari ere begiratu behar zaio. Horrelako egoerarik gertatuz gero, horren berri jakinarazi behar da Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen ebazpen bidez.

Laugarrena.– Eskabideak aurkezteko baldintzak, tokia eta epea.

1.– Nazioartekotze Beken Programa arautzeko Aginduan aurreikusitako bekak eskuratzeko, aipatu aginduaren 3. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako betekizunak konplitu beharko dituzte eskabidea egiten dutenek.

2.– Programa honetako parte-hartzaileek Nazioartekotze Beken Programa arautzeko Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera bete eta aurkeztu beharko dituzte eskabidea eta agiri osagarriak. Aukeratutako izapidea telematikoa bada, eskabide-eredua eskuratzeko, eta eskabide hori Administrazioan aurkezteko www.euskadi.net/industria webgunean sartu beharko da. Bestela, www.euskadi.net/industria webgunean eskabide-eredua eta inprimakiak bete eta grabatu ahal izango dira, gero inprimatu eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkezteko, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako edozein bidetatik.

3.– Deialdiko beketarako eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2011ko maiatzaren 28an.

nerales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2011 (BOPV n.º 250 de 30 de diciembre de 2010), se destinan las cantidades siguientes:

1.– La modalidad A tiene una valoración económica máxima, para el ejercicio 2011, de 100.000 euros.

2.– Para las Modalidades B y C, conjuntamente, se destina una dotación de cuatro millones ciento cincuenta y cinco mil quinientos cincuenta y seis (4.155.553) euros, distribuidos del siguiente modo:

– Ejercicio 2011: 1.888.889 euros.

– Ejercicio 2012: 1.208.886 euros.

– Ejercicio 2013: 1.057.778 euros.

El expresado importe podrá ser incrementado, teniendo en cuenta la cuantía total de las becas a conceder, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de la respectiva convocatoria. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Innovación y Tecnología.

Cuarto.– Requisitos, lugar y plazo de presentación de las solicitudes.

1.– Los solicitantes, para poder acceder a las becas previstas en la Orden reguladora del Programa de Becas de Internacionalización, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la citada Orden.

2.– La cumplimentación de la solicitud y su presentación, junto con la documentación complementaria requerida, por parte de los participantes en este programa se realizará, siguiendo lo establecido en el artículo 7 de la Orden reguladora del programa de Becas de Internacionalización, bien mediante tramitación telemática, en cuyo caso tanto el acceso al modelo de solicitud como su presentación en la Administración, se efectuará en la web www.euskadi.net/industria, o bien rellenando y grabando en la web: www.euskadi.net/industria el modelo de solicitud y formularios, imprimiéndolos posteriormente y presentándolos en la correspondiente Delegación Territorial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes para las becas que se convocan se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 28 de mayo de 2011.

Bosgarrena.– Hautaketa-probak eta aurkeztutako merezimenduak balioesteko irizpideak.

Nazioartekotzeko beken programa arautu duen (2011ko apirilaren 13ko EHAA) Industria, Berrikuntza, Merkataritza, eta Turismo sailburuaren 2011ko apirilaren 26ko Aginduan 9. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 27a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.

Quinto.– Criterios de valoración de las pruebas de selección y de los méritos aportados.

Se estará a lo dispuesto en el artículo 9 de la Orden de 13 de abril de 2011, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo, que regula el Programa de Becas de Internacionalización (BOPV de 26 de abril de 2011).

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2011.

El Viceconsejero de Innovación y Tecnología,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.